

Senekaren *Medea* (1-514) antzerki-lanaren euskarazko itzulpena eta oharrak

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua
2020-2021 Ikasturtea

Ikaslea: Ane de la Presa Urturi
Tutorea: Gidor Bilbao Telletxea
Saila: Ikasketa Klasikoak

Aurkibidea

AUTOREA ETA OBRA.....	4
Senekaren <i>Medea</i>	4
ITZULPEN-PROZESUA.....	6
Zubi-testuak	6
Lexikoa.....	7
Periodo luzeak.....	8
Nire itzulpenaren edizioa	11
LEGENDAREN TESTU-INGURAKETA.....	12
GEOGRAFIA	15
GENEALOGIA	16
IRAKURKETA DRAMATIZATUA.....	16
ITZULPENA.....	17
PERTSONAIAK.....	17
LEHENENGO EKITALDIA.....	17
MEDEA.....	17
KORUA.....	19
BIGARREN EKITALDIA	21
MEDEA-INUEA	21
KREONTE-MEDEA	24
KORUA.....	27
HIRUGARREN EKITALDIA	29
INUEA-MEDEA	29
JASON-MEDEA.....	31
PERTSONAIEN AUKIBIDEA.....	34
BIBLIOGRAFIA.....	38

AUTOREA ETA OBRA

Luzio Anneo Seneka Kordoban sortu zela dakigu, ez ordea bere jaiotzaren data zehatza; adituek K.a. 8. eta 4. urteen artean kokatu ohi dute. Familia erromanizatu batean jaio zen, Kordoban mugimendu kultural eta intelektuala loratzen ari zen garaian. Oraindik gazte zenean izeba batek Erromara eraman zuen eta bertan pentsamendu filosofikoaren lanketak asko erakarri zuen, eskola estoizistako tendentziek bereziki. Eskola honen ikasbidea jarraitu zuen arren, ez zuen bere jarduera doktrinara mugatu: oratoria ikasi eta landu zuen, eta bere garaiko hizlari nagusietako bat izan zen.

Erromako bizitza publiko eta politikoa jardun zuen eta jarduera horrek zekartzan azpikerien jomuga bihurtu zen. Erbestera kondenatu ostean, zortzi urte eman zituen Korsika uharte basati eta bakartian.

Klaudio enperadorearen emazte berriak, Agripinak, erbestetik ekarri zuen eta Erromako pretore izatea eta bere seme Neronen irakasle izatea eskaini zion. Horrela, Seneka bizitza politikora itzuli zen, hirurogei urteak pasa arte. Ordutik aurrera filosofian jardun zuen, eta garai hartan idatzi zituen bere obra eta tratatu nagusiak.

Seneka filosofo moralaz izateagatik egin zen ezagun: harentzako norbere buruarekiko zorrotz jokatzeko da moralki ona den bizitza baten oinarria. Bere obra literarioaz gain bederatzi tragediaren autoretza egozten zaio.

Senekak tradizio grekotik hartu zituen bere antzerki-lanetako gaiak, giza-pasioak aztertzea ahalbidetzen ziotenak. Euripidesek abiatu zuen tendentzia jarraituz, Senekak aurrerapen handiak egin zituen greziako antzerkigintza humanizatzekeo prozesuan, antzerkigintza garaikidearen oinarriak ezartzeraino. Antzinako zein gaur egungo kritikoko gehienek ustez *Medea* izan zen, justuki, berak idatzitako bederatzi antzerki-lan horien artean onena.

Senekaren *Medea*

Senekaren lan literario gorena izateaz gain, bertsio hau izan da Aro Modernoan Medearen istorioaren testu transmisore nagusia.

Senekaren antzerkigintzaren funtzio edota helburuez asko idatzi da, eta askotan egotzi izan zaio obrak ez zirela antzeztuak izateko sortu, nahiz eta historian zehar egin izan diren testuen antzezpenek argudio horren kontrako froga argia diren. Tragedian,

Senekak, alde batetik, pertsonaien sentimenduak eta psikologia unibertsalizatzeko genero egokiena topatu zuen eta giza-existentziatik sortzen diren tentsio eta borroka aztertzeko aukera ematen zion. Bestetik, aditu askok Senekaren antzerkigintzaren funtzio pedagogikoa ere azpimarratu ohi dute, teoria estoizistak transmititzeko ere baliatu zuela argudiatuz.

Idatzien helburuaz, hipotesiak egiteaz gain, ezer gutxi jakin dezakegu ziurtasunez. Aldiz, ezin ukatuzkoa da obran agerian geratzen direla autorearen bizitzako hainbat aspektu:

- Seneka hizlaria: Senekak bere bizitzaren parte handi bat Erromako bizitza politikoan eman zuen eta, aurretik esan dugun bezala, hizlari handia izan zen. Obra honetan nabaria da trebetasun horrek eragina izan duela *Medearen* egituran, izan ere, antzezlanaren argumentua garatzen duen elementua ez baita akzioa, elkarrizketa eta bertan gertatzen diren arrazoiketak baizik (askotan monologo luzeak).
- Seneka filosofoa: Estoikoen zioten probidentzia onbera batek gidatzen zuela bizitza. Gaizkiaren existentzia haien teorian justifikatua zegoen, oreka mantentzeko beharrezko elementu gisa. Medean argi ikus daiteke gertaera ezberdinen arteko orekaren bilaketa etengabea:
 - Argo ontziak naturaren legeak hautsi ditu eta Medearen mendekua naturaren kontrako krimen baten bitartez gauzatzen da.
 - Peliasek Eson hil zuen eta Medearen bitartez heriotza horren mendekua gertatzen da.
 - Medeak anaia erail izana orekatzeko nahiko luke Jasonek anaia bat izatea hura hil eta horren bitartez mendekua bilatzeko.
 - ...

Horrez gain, *Medean* aurkitu dezakegu (kontraste bidez bada ere) estoizisten bizitza onaren eredua: nor bere buruarekiko zorrotasuna; arrazoia (*ratio*) vs pasioa (*furor*). Hain zuzen ere, giza-pasio eta sentimendu horien inguruko hiztegiak hartuko du garrantzia berezia Senekaren lan honetan: *dolor*, *ira*, *furor* izenak eta *effera* eta *effrena* adjektiboak.

ITZULPEN-PROZESUA

Testu baten jatorrizko hizkuntza ez ezagutzeak itzultzailea zubi-testuak erabiltzera behartzen du. Zorionez, *Medea* obra garrantzitsua izanik, hainbat hizkuntzatakako itzulpenak daude eskuragarri, hizkuntza bakoitzean bertsio bat baino gehiago, eta horietako batzuk berriki argitaratuak. Honek aukera eman dit haien artean hautaketa bat egiteko eta inoiz ez naiz zubi-testu bakar batera lotua sentitu; kontrastatzeko eta alderatzeko aukera eman didate eta testu berberaren hainbat bertsio irakurri ahal izatea (horrek dakarren aberastasunarekin) itzulpen-prozesuan lagungarria izan zait. Noski, zubi-testuen aniztasunak eta jatorrizko testua latinez ulertzeko ezintasunak batzuetan interpretazio-arazoak sortu dizkit, eta horretarako lan honen zuzendari izan dudana Gidor Bilbaoren laguntza izan dut.

Zubi-testuak

Eskura nituen itzulpen guztietatik (ikusi zerrenda osoa bibliografian) zubi-testu moduan erabiltzeko bost aukeratu ditut, horietako bi gazteleraz, ingelesezko bat eta frantsesezko beste bi. Horiek hautatzeko irizpide nagusia edizioaren berritasuna eta jatorrizko testuarekiko hurbiltasuna izan dira, Dupont-ena bezalako beste itzulpen batzuk Senekaren testutik gehiegi aldentzen zirela iruditu baitzitzaidan.

Hona itzulpena egiteko erabili ditudan zubi-testuak:

- Chaumartin, François-Régis [ed. eta itz.], (1996). *Seneca, L. A. Tragédies*. Paris : Les Belles Lettres.
- Fitch, John G. [ed. eta itz.], (2002). *Seneca, L.A. Tragedies, Volume I: Hercules. Trojan Women. Phoenician Women. Medea. Phaedra*. Cambridge: Harvard University Press.
- Greslou, Eugène [itz.], (2016). *Séneca, L. A. Médée*. Paris: Hachette.
- Luque Moreno, Jesús [itz.], (1979). *Séneca, L. A. Tragedias I*. Madril: Gredos.
- Pérez Gómez, Leonor [itz.], (2012). *Séneca, L. A. Tragedias completas*. Madril: Cátedra.

Esan beharra daukat latinezko testura ere jo dudala sarritan, bere horretan ulertzeko gai ez banaiz ere, batez ere hitz jakin batzuen itzulpen egokia bilatzerako orduan.

Senekaren *Medea* aniztasun handiko bertso-lerrotan idatzita dago, baina, beste behin zubi-testuen eredua jarraituz, erabaki nuen bertsoan idatzia dagoen testu honen euskarazko itzulpena prosaz erredaktatzea, eta koruak kantatzen dituen pasarteak nolabait bereiztearren lerrotan ematea (ez bertso-lerro neurtuetan).

Lexikoa

Medearen istorioa zehaztugabeko garai legendario batean gertatzen da, Senekarena baino antzinagoko garai batean eta gaur egungo erlijioetatik are urrunago dagoen espiritualtasun testuinguru batean, dudarik gabe. Testua jainko, izaki mitologiko eta espirituei egindako erregu eta erreferentziaz betea dago, euskarazko testuetan gutxitan jasotako diskurtso-eredua erabiliz. Euskararen korpua, aldiz, aberatsa da erlijio katolikoaren inguruko gaietan, eta garrantzitsua iruditu zitzaidan, itzulpen lan zehatz honetan, hauetatik aldentzea, greziar eta erromatar mitologiaren kutsu paganoa ez zedin beste erlijiozkotasun batzuen oihartzunez tindatu.

“inframundua” vs “infernua”

virgineus → “dontzeila” vs “birjina”

pudor → “bertutea” vs “izen ona”

Greziar mitologiaren tradizioarekin lotutako lexikoarekin jarraituz, euskarazko hiztegietan eta bestelako kontsulta baliabideetan agertzen ez ziren termino batzuentzako euskal ordaina eman behar izan dut pare bat kasutan: *manes*, *thyrsigerus*... Hasiera batean parafrasira jo banuen ere (“etxeko espiritu babesleak”, “huntzaz eta pinaburuz apaindutako makila daramazuna”), azkenean mailegu berriaren aldeko hautua egin nuen (“maneak”, “tirtsoa daramana”), *Oinarrizko Hiztegia. Latina-Euskara* argitaratu berriaren bidetik.

Berdin jokatu dut erreferentzia geografikoen edo jentilizioen inguruko esamoldeen kasuan:

“*Cecropias nurus*” ~~Atenasko neska gazteak~~ «gazte zekropiar»

“*Taygeti iugis (...) muris* ~~harresirik gabeko Espartan~~ «Taigetoko mendi
quod caret oppidum” tontorretan (...), harresirik

Kasu guzti hauetan itzulpena originaletik gertu mantendu bada ere, espresio hauek oin oharrez laguntzea erabaki da, testura hurbilduko direnen irakurketa eta ulermena lagundu, erraztu eta osatzeko.

Edonola ere, obra honek badauka atentzio berezia eskatzen duen lexiko zehatz bat. Aurretik esan bezala, *Medea* obraren gatazka protagonistaren sentipenen inguruan txirikordatzen da eta horiek adierazterako hitzak dira testuan pisu handiena hartzen dutenak, eta ondorioz horiek itzultzeak hautu kontzienteago eta zainduago bat eskatzen du, nire ustez: *furor*, *ira*, eta *dolor* izenez, eta *effera* eta *effrena* adjektiboez ari naiz, zeinak modu ahalik eta homogeenen itzultzeko saiakera egin baita:

- *Dolor*: hitz hau itzultzeko “bihozmin” espresioa erabiltzea erabaki da (“daukan bihozmin guztia bere aurpegian islatzen da) salbuespen bakar batekin, zeinetan “min” hitzarekin itzuli den (“Zentza eta ezkuta daitezkeen horiek min arinak dira”).
- *Furor*: orokorrean “furfuria” edo “furia” hitzez itzuli dira *furor* eta bere eratorriak. Bi kasu konkretutan, aukera hau ezinezkoa izanik, “eroa” (*furiose*) eta “sutan dago” bezala itzuli da.
- *Ira*: Medea bere sentipenenez ari denean hitz hau ordezkatzeko “sumina” hitza erabili da, orokorrean (“sumina armatzat hartuta”), eta “haserrea” gainontzekoetan (“erregearen haserreak”).
- *Effera*: hirutan errepikatzen den hitz honen kasuan hiru ordain ezberdin eman dira kokapenaren arabera: “krudel”, “(aztoramen) zoroa” eta “ankerra”.
- *Effrena*: behin bakarrik agertzen da, eta ‘zoro’, ‘neurrigabeko’, ‘menderakaitz’ edo halakoren bat erabili beharrean, nahiago izan da ‘bridagabetua’ etimologikoa erabili.

Periodo luzeak

Lanean hasi bezain laster, *Medea* antzerki-lanaren hasierako monologoko periodo luzeak itzulpen-erronka handia izan ziren, baina ez dira bakarrak izan. Testuan zehar, ugariak dira etenik gabeko periodo luzeak, esaldi amaiezinak eta joskera katramilatsuak.

Nolanahi ere, testu baten hasiera eta amaiera arreta bereziz tratatu beharreko atalak izaten dira eta saiatu naiz Medearen lehenengo monologoa (1-55 bertso-lerroak) ahalik eta ondoen orrazten, irakurketa leun bat ahalbidetzeko, periodo luzearen arnasaldi luzea ahal den gutxien etenda. Horretarako, bi elementu gako baliatu ditut: puntuazioa (askotan puntu eta koma) eta indargarri moduan erabilitako determinatzaile erakusle errepikatuak:

Di coniugales tuque genialis tori,
Lucina, custos quaeque domituram freta
Tiphyn nouam frenare docuisti ratem,
et tu, profundi saeue dominator maris (*Medea* 1-4)

“Ezkontzaren jainko horiek; eta zu, Luzina, ezkon-oherearen zaindaria **hori**; eta Tifisi itsasoak menderatuko zituen ontzia gobernatzen irakatsi zenion beste **hori**; eta zu, Itsaso sakonaren menderatzaile ikaragarri **hori**; (...)”.

Era horretan, irakurleari mugarriak eskaintzen zaizkio elkarrengandik banaturik dauden elementuak lotzeko eta eta diskurtsoaren norabidea erraztasunez jarraitzeko. Hori lortzeko, behin baino gehiagotan jo behar izan da errepikapenetara (subjektuetan, bokatiboetan, aditzetan...) eta elementu errepikatuak leku estrategikoetan kokatzera:

Concesso, iuuenes, ludite iurgio,
hinc illinc, iuuenes, mittite carmina (*Medea* 107-108)

“Liskar-olgetak baimenduta daude gaur, **gazteok**;
batak besteari bertsoak bota, **gazteok**, (...)”

Ad regum thalamos numine prospero
qui caelum superi quique regunt fretum
adsint (...). (*Medea* 56-58)

“Errege-ezkontzaren alde etor daitezela
zeruan agintzen duten **jainkoak**,
bai eta itsasoko errege diren **jainkoak** ere, (...)”

Lucinam niuei femina corporis
intemptata iugo placet, et asperi
Martis sanguineas quae cohibet manus,
quae dat belligeris foedera gentibus
et cornu retinet diuite copiam,
donetur tenera mitior hostia. (*Medea* 61-66)

“inoiz uztartu gabeko elurrezko eme batek
ohoratu dezala Luzina; Marte errukigabearen
esku odolzaleei aurre egiten **dienari**,
herri gudariek inunak egiten **dituenari**,
bere adarrean ugaritasun jainkotiarra gordetzen **duenari**,
haren leuntasunagatik, eskain diezaiozun biktima samur bat.”

Puntuazioari dagokionez, orokorrean parentesi edo marra luzeen erabilera ekiditu egin da, aposizioak egiterako orduan adibidez. Aldiz, bi puntuen, komen eta puntu-komaren erabilera lehenetsi da. Kasu bakan batzuetan, ezinezkoa izan denean esaldien korapiloa lehenestutako puntuazio markak erabiliz ebaztea, parentesiak ere erabili dira.

quosque iuravit mihi
deos Iason, quosque Medeae magis
fas est precari: noctis aeternae chaos,
auersa superis regna manesque impios
dominumque regni tristis et dominam fide
meliore raptam, uoce non fausta precor. (*Medea*, 7-12)

“(…) eta zuek, jainko horiek, zeinen izenean Jasek zin egin baitzidan, eta zeinen aurrean zilegi den, Medearentzat batez ere, erreguak aurkeztea (gau eternaleko Kaos, gure goiko erreinu honen bestaldean aurkitzen diren erreinuak, eta mane adeigabeak, eta erreinu iluneko jauna, eta ni baino fideltasun handiagoz bahitua izan zen andrea) (…)”.

Mihi peius aliquid, quod precer sponso malum:
uiuat, per urbes erret ignotas egens
exul, pauens, inuisus, incerti laris;
me coniugem optet, limen alienum expetat
iam notus hospes, quoque non aliud queam
peius precari, liberos similes patri
similesque matri pariat. (*Medea*, 19-25)

“Eta emadazue senarrarentzako sekula eska nezakeena baino okerragoa den zerbait: bizi dadila, ibil dadila noraezean hiri ezezagunetan zehar, beharrean, deserritua, beldur-ikaraz, gorrotatua, etxerik gabe; beti ostatu bila ibiltzeagatik ezagun denean, besteren ataria irrikatu dezala, bere emazte naizenaren falta sumatu dezala, eta baita (ezin dut hau baino okerragorik eskatu) aitaren eta amaren antza duten semeena ere.”

Kasu gutxi batzuetan, esaldi bat josteko zaila zenetan edo esaldia bere baitan itzultzearen emaitza ulergaitza egiten zenetan, perpausak zatitzea erabaki da:

ex opibus illis, quas procul raptas Scythae
usque a perustis Indiae populis agunt,
quas quia referta uix domus gazas capit,
ornamus auro nemora, nil exul tuli
nisi fratris artus. (*Medea* 483-487)

“Eszitiarrek urruneko lurretan eta are Indiako herri kiskalietan ere atzemandako aberastasunek jauregian gainezka egiten dutenez, basoak urrez apaintzen ditugu. Haietako bat ere ez nuen erbestera ekarri; nire anaiaren gorputz zatiak baino ez.”

Nire itzulpenaren edizioa

Itzulpenaren edizio lana ere erronka handia izan da, ia itzulpena bera bezainbestekoa. Lehen esan bezala, Senekaren Medearen garaiko literatura askorik ez dago euskaraz eskuragai eta, gainera, antzinaroko antzerkigintza, orokorrean, erdarazko irakurleen kasuan ere, ez da irakurketarik irisgarriena salbu eta gaian jantzia denentzat, eta horrek ezinbesteko bihurtzen du ongi editatutako eta informazio gehigarritz aberastutako edizioak egitea.

Nire lanaren helburua izan da antzinako mitologiari buruz ezer gutxi ezagutzen duen edonork ulertu eta disfrutatzeke moduko itzulpen bat egitea, horretarako beharrezko edo lagungarriak iruditu zaizkidan gehigarriez osatuz. Tresna horiek hautatu eta diseinatzean osagarritasunaren aldeko apustua egin da, hau da, informazioa hainbat formatutan eman da, kasu batzuetan informazioa formatu ezberdinetan errepikatu da eta inoiz ez du batek bestea ordezkatu. Modu horretan, norberak bere irakurketa nahieran bizi ahal izango du, beharrezkoa duen informazioa nahiago duen momentu eta iturrian kontsultatuz.

Horretarako jarraian zerrendatzen ditudan tresnak baliatu dira:

a) Hitzaurrean:

- a. **Legendaren testu-inguraketa:** *Medea* antzezlan hainbat kapitulu dituen istorio luzeago baten amaiera dela esan genezake. Legendaren inguruko sarrera labur honen bitartez, testua ongi ulertu ahal izateko ezagutu behar diren pasarteen aurkezpen bat eskaini nahi izan da.
- b. **Erreferentzia geografikoak:** *Medea* eta Jasonen istorioa bidaia batekin hasi zen; Mediterraneoaren eta Itsaso Beltzaren esparru zabal bat hartzen du eta, pertsonaien elkarrizketetan, etengabe aipatzen dira giltzarri diren

kokagune batzuk. Mapa horren bitartez, istorioa espazialki kokatzeko aukera erraztu nahi zaio irakurleari.

- c. **Zuhaitz genealogikoa:** Medearen, Jasonen eta Kreusaren zuhaitz genealogikoak ere sarreran txertatu dira, antzezlanean hainbatetan haien arbasoei buruzko aipamenak egiten baitira.
- b) Testuan – **Oin-oharrak.** 94 oin-ohar idatzi dira, testua ulertzeko lagungarriak izan daitezkeen azalpenekin.
- c) Hitzatzean – **Pertsonaien aurkibidea.** Antzezlanean agertu eta aipatzen diren pertsonaia guztien aurkibidea eta bakoitzaren deskribapen laburra eskaini da, 50 sarrera ordena alfabetikoz aurkezturik.

LEGENDAREN TESTU-INGURAKETA

Medea sorgin boteretsua Kolkidan kokatzen dugu, Fasis ibaiaren bokalean. Eetes Kolkidako erregearen eta Idia ozeanidearen alaba da, nahiz batzuetan Hekate, sorginen zaindaria, aurkeztu izan den bere ama moduan. Era berean, Eguzkiaren eta Zirtze sorginaren biloba da, aitaren leinutik.

Bigarren pertsonaia nagusia Jason da Tesaliako Iolko hiriko erregearen, Esonen, semea. Jason Argo itsasontziaren kapitaina izango da, lehen itsas zabaleko nabigazioa egingo duen ontziarena, hain zuzen ere. Baina kokatu ditzagun bi pertsonaia hauek greziar mitologiako narrazioan, *Medea* tragedia testu-inguratzeko eta ulertzeko beharrezkoa izango den kontakizunean.

Pelias Iolkoko errege bihurtu zen Eson, bere anaiaordea, tronutik bota eta hil ostean. Esonen emea, Jason, umezurtz geratu zelarik, Kiron izeneko zentauro batek hezi zuen Pelio mendian. Gazteak hogeit hamar urte bete zituenean Peliasen gortearen aurrean aurkeztu eta berari zegokion tronua eskatu zuen. Erregeak ez zuen Jasonen eskaria errefusatu, baina ezinezkotzat jotzen zuen baldintza bat jarri zion: urrezko ardi-larrua bereganatu eta Kolkidatik ekartzea.

Urrezko ardi-larru hura Frixok Kolkidako Eetes erregeari egindako opari bat izan zen. Eetesek urrezko altxorra arte batean zintzilikatu zuen, eta inoiz lo egiten ez zuen herensuge bat jarri zuen hura zaintzen.

Jasonek Peliasen erronka onartu eta, heraldo bidez, eginkizun horretan lagunduko zuten Greziako heroiei dei egin zien. Horretarako prest agertu ziren, besteak beste, Polux,

Kastor, Orfeo... Argoren espedizioan parte hartu zuten gazte greziar haiek Argonauta eta Minia izenez ezagutzen dira.

Kolkidarako bidaiak lurrez egitea pentsaezina zen, baina garai hartan nabigazioa ez zen oraindik existitzen. Ordura arte marinel ausartenek kabotajea baino ez zuten egiten, lur babeslea begi bistatik galtzeko beldurrez. Horregatik, Jasonek Argosi laguntza eskatu zion, zeinak Atenearen zuzendaritzapean sekulako potentziadun itsasontzia eraiki zuen, 50 arraunlarirentzako prestatua. Ontzia eraikitzeko Argosek Pelio mendiko egurra erabili zuen, Jason hezi zen mendikoa, hain zuzen ere. Itsasontziaren branka, aldiz, arte sakratu baten egurraz egina zegoen, Ateneak berak taillatu zuen, eta hitz egiteko eta profeziak egiteko gaitasuna eman zion. Arotzaren omenez, ontziari Argo izena jarri zioten ('distiratsua', 'bizkorra').

Beste hainbat oztoporen artean Argok, Kolkidarako bidean, Sinplegade harkaitzen artetik igaro behar izan zuen. Bi harkaitz hauek Bosforoan kokatuta zeuden, Itsaso Beltzaren sarreran, eta batak bestearen aurka talka egiten zuten, bertatik pasa nahi zuen orori bidea ixteko. Argo izan zen haien artetik igarotzea lortu zuen lehena eta, ordutik, harkaitzak finko geratu ziren.

Kolkidara iritsi zirenean Jasonek Eetesengana jo zuen eta Peliasek agindutako eginkizuna azaldu zion. Beste behin, errege honek ere ez zion eskaera ukatu, baina urrezko ardi-larrua eramateko baldintza moduan beste erronka bat jarri zion: arnasa hartzean sua botatzen zuten eta brontzezko apatxak zituzten bi zezen basati uztartzea eta haiekin lursail bat goldatzea, ostean dragoi baten haginak bertan ereiteko.

Argo Kolkidara iritsi zenean Medea Iolkoko heroiaz zeharo maitemindu zen berarekin ezkontzeko eskatu zion eta Eetesek Jasoni jarri zion proba gainditzeko laguntzaren truke. Jasonek tratua onartu zuen eta Medeak ukendu magiko bat eman zion, egun oso batez ezin zaurituzkoa bihurtuko zuena. Gainera, ohartarazi zuen herensugearen haginak ereiterakoan lurretik gudari armatuak erneko zirela, eta haiek garaitzeko modua azaldu zion: gudari taldearen erdira harri bat bota ezkerreko, gerlariak elkar hilko zuten. Jasonek proba gainditu eta urrezko ardi-larruaren bila joan zen, zeina inoiz lorik egiten ez zuen herensuge batek zaintzen baitzuen. Medeak bere botereak baliatuz herensugea lokartzea lortu zuen eta ardi-larrua lortu zuten.


Hura ikusita, Eetes haserre bizian jarri zen eta, bere hitza bete beharrean, Argo erretzen eta Argonautak hiltzen saiatu zen, arrakastarik gabe. Medeak Jasonekin ihes egin zuen,

bere anaia txikia Apsirto bahituta. Erregea haien atzetik abiatu zenez, eta jazarlea atzeratzeko asmoz, Medeak anaia zatikatu zuen eta bere gorputz atalak itsasoan barreiatu zituen, ihes egitea lortuz.


Argo ontzia Iolkora iritsi zenean, Medeak Peliasen aurka mendeku hartu nahi izan zuen, Jason urrezko ardi-larruaren bila bidali izanagatik. Mendeku higuinaria izan zen: erregearen alabei sinestarazi zien gai zela, bere botere magikoak erabiliz, haien aita zaharrari gaztetasuna emateko eta, horretarako, agurearen gorpua zatikatu eta pertz batean egosi behar zutela. Emakumeak konbentzitzeko, ahari zahar batekin egin zuen proba. Animalia pertzetik arkume bihurtuta irteten ikusi zutenean, Peliasen alabek Medeaaren esanak jarraitu eta agurearen gorpua zatikatu zuten, baina sorginak ez zuen agurea berpiztu.

Krimen haren ostean, Peliasen seme Akastok aitaren heriotzagatik mendeku hartu nahi izan zuenez, Jasonek eta Medeak berriz ere ihes egin behar izan zuten eta Korinton babestu ziren. Hamar urtez bertan bizi izan ziren, egun batean Korintoko erregeak, Kreontek, Jasoni bere alaba Kreusarekin ezkontzeko agindu zion arte.

GEOGRAFIA



GENEALOGIA



IRAKURKETA DRAMATIZATUA

Senekaren antzezlanen helburuaren inguruan iritzi ezberdinak egon badira ere eta nahiz eta batzuen ustetan autoreak ez zituen antzeztuak egiteko idatzi, Medea hainbatetan taularatu izan da hizkuntza ezberdinetan, hipotesi hori baliogabetuz. Horregatik, itzulpen honen anbizio gorena antzeztua izatea da eta lan honetan balizko antzezpene horren lagin txiki bat eskaini nahi izan da. Itzulpen eta edizio lana osatzeko helburuarekin eta Senekak Medeari eman zion boza giza ahotsean nola eman lezakeen erakusteko, Medearen lehenengo monologoaren irakurketa dramatizatu bat egin da.



Medea.mp3

ITZULPENA

PERTSONAIAK

MEDEA: Eetes Kolkidako erregearen alaba, Jasonen emaztea.

INUDEA: Medearen inudea.

KREONTE: Korintoko erregea.

JASON: Argonauten espedizioaren burua eta Medearen senarra.

KORUA: Korintoko hiritarrak.

AGERTOKIA: Korinto, erregearen jauregiaren plazan, Medearen etxe aurrean.

LEHENENGO EKITALDIA

MEDEA

MEDEA.— Ezkontzaren jainko¹ horiek; eta zu, Luzina², ezkon-ohearen zaindari hori; eta Tifisi itsasoak menderatuko zituen ontzia gobernatzen irakatsi zenion beste hori³; eta zu, Itsaso sakonaren menderatzaile ikaragarri hori⁴; eta zu, Titan⁵, egunaren argitasuna munduan zehar banatzen duzuna; eta zu, Hekate⁶, hiru 5 aurpegiduna, zeremonia misteriotsuei distira konplize bat eskaintzen diezun hori; eta zuek⁷, jainko horiek (gau eternaleko Kaos, gure goiko erreinu honen bestaldean aurkitzen diren erreinuak, eta mane⁸ adeigabeak, eta erreinu iluneko jauna⁹, eta ni baino fideltasun handiagoz bahitua izan zen andrea¹⁰), zeinen

¹ Jupiter, Juno, Himeneo eta Venus.

² Juno, Luzina ere deitua, erditzeen babesle.

³ Atenea, Argo ontziaren eraikuntzaren buru izan zen eta Tifisi irakatsi zion nabigatzeko jakin beharreko guztia.

⁴ Neptuno, itsasoaren jainkoa.

⁵ Eguzkia, Medearen aitona.

⁶ Magiaren eta ilargiaren jainkosa, hiru aurpegirekin irudikatu ohi da.

⁷ Inframunduko jainkoak: Kaos, Pluton eta Proserpina.

⁸ Hildako arbasoen arimak, etxearen babesleak.

⁹ Pluton, inframunduko jainkoa, Proserpinarekin batera.

izenean Jasonek zin egin baitzidan, eta zeinen aurrean zilegi den, Medearentzat 10
batez ere, erreguak aurkeztea. Zuei guztioi arao egiten dizuet, batere zorioneko
ez den ahotsez.

Oraintxe, zatozte nigana oraintxe, krimenaren mendekatzaille zareten jainkosak¹¹,
bildu gabeko adatsean sugedorriak tente, zuzi beltzak estu helduz esku 15
odoleztatuetan. Zatozte, nire ezkon-oherearen alboan jarri zinetenean bezain
izugarri. Hil ezazue emazte berria¹², eta hil aitagarreba¹³ eta errege-leinua. Eta
emadazue senarrarentzako sekula eska nezakeena baino okerragoa den zerbait:
bizi dadila, ibil dadila noraezean hiri ezezagunetan zehar, beharrean, deserritua, 20
beldur-ikaraz, gorrotatua, etxerik gabe; beti ostatu bila ibiltzeagatik ezagun
denean, besteren ataria irrikatu dezala; bere emazte naizenaren falta sumatu
dezala, eta baita (ezin dut hau baino okerragorik eskatu) aitaren eta amaren antza
duten semeena ere.

Sorturik dago, mendekua sorturik dago jada: neuk sortu dut. 25

Alferrik ari al naiz hitzak eta auhenak haizeari jaurtitzen? Ez al diot etsaiari aurre
egingo? Haren eskuetatik zuziak¹⁴ erauziko ditut, eta zerutik argia.

Hori guztia ikusi ahal izango du Eguzkiak, nire leinuaren aitalehenak¹⁵? Eta
ikusiko al dugu guk hura, gurdi gainean zero oskarbia zeharkatzen? Buelta erdi 30
egin eta ekialdera itzulirik beste egun bat zeharkatuko al du? Emadazu aukera,
emadazu aukera nire arbasoen gurdian airea zeharkatzeko; emadazu gidatzearen
ardura, aita; utzidazu brida sutsuekin zaldi kartsuak gobernatzen, era horretan
Korinto, bi itsasertz dituen eta itsasbideen oztopo dena, errauts dadila, bi 35
itsasoak elkartu daitezten¹⁶.

Hau da geratzen den egiteko bakarra: nik neuk ezkontzako zuzia ezkon-ohereaino
eramatea, eta sakrifizio-erreguak egin ostean, biktimak nik neuk hiltzea aldare
sagaratuan.

Erraien barrenean bila ezazu mendekuaren bidea, arima neurea, oraindik bizirik 40
bazaude, garai bateko indarra gelditzen bazaizu; bazter itzazu emakumezkoen
beldurrak eta jantzi ezazu berriz Kaukaso babesgabearen izaera.

Istmoak ere ezagutuko du Pontoak eta Fasisak¹⁷ ezagutu duten bidegabekeria.
Bai zerua, bai lurra dardaraziko dituen hondamen krudel, ezohizko eta 45
ikaragarriak darabilzkit buruan, aztoratuta.

¹⁰ Proserpina, laborantzaren jainkosa izandakoa, Plutonek bahitu eta inframundura eraman zuen arte, harekin batera inframunduko jainkosa bihurtzeko. Plutonek ez zuen zapuztu eta fidela izan zitzaion.

¹¹ Furiak, justiziaren zerbitzariak ziren, mendekuaren jainkosak.

¹² Kreusa.

¹³ Kreonte.

¹⁴ Jasonen eta Medearen ezkontzako zuziak.

¹⁵ Eguzkiak, Medearen aitona, egunero zeharkatzen zuen zerua, lau zaldi bizkorrez tiratutako suzko gurdi batean.

¹⁶ Korintoko istmoa Egeo itsasoaren eta Itsaso Jonikoaren artean kokaturik zegoen eta itsasontziak itzuliguru luzea egitera behartzen zituen. Pasarte honetan, Faetonek Eguzkiaren gurdia gidatzen saiatu zenean eragindako hondamendiaz ari da.

¹⁷ Pontoa: Itsaso beltza, Medearen sorterraren den Kolkidaren kokalekua. Fasisa: Fasis ibaia eta hiri.

Zauriak eta sarraskia eta gorputz-ataletan zatitutako hiletak¹⁸... Hutsalegiak diren gauzak datozkit gogora; dontzeila nintzenean egindakoak. Nire bihozmina are era ikaragarriagoan indarberritu behar da; handiagoak dira erditu ondoren dagozkidan krimenak. 50

Sumina armatzat hartuta, presta zaitetz hondamendiari furfurua osoz ekiteko. Parekoak izan daitezela zure ezkontzaren istorioa eta zapuztu zaituztenekoa. Nola utziko duzu? Haren atzetik joan zinen modu berean. Utzi behingoz alferrik itzaroteari. Krimen batez sortutako etxea krimen batez utzi beharra dago¹⁹. 55

KORUA

Errege-ezkontzaren alde etor daitezela zeruan agintzen duten jainkoak, bai eta itsasoko errege diren jainkoak ere, eta herriaren babes isilarekin bat egin dezatela, errituak eskatu bezala. 60

Aurrena, larru zuridun zezen batek lepoa luze jasoko du trumoiaren erregeei eskaintzeko²⁰; inoiz uztartu gabeko elurrezko eme batek ohoratu dezala Luzina²¹; Marte²² errukigabearen esku odolzaleei aurre egiten dienari, herri gudariekin itunak egiten dituenari, bere adarrean ugaritasun jainkotiarra gordetzen duenari, haren leuntasunagatik, eskain diezaiogun biktima samur bat²³. 65

Eta zu, ezkontza zilegi guztietan zauden hori, eskuineko esku babesle horrekin gaua hausten duzun hori, hurbildu zaitetz pausu makal eta kulunkariaz, arrosaz eginiko diademaz inguratuta lokiak²⁴. 70

Eta zu, gauak eta egunak iragartzen dituzun izar, maitaleek diotenez aldiro berandu itzultzen zaren hori, zu iguriki zaituzte amek eta neska gazteek irrikaz, zure argi-izpiak hainbat arinen zabaldu ditzazun²⁵.

¹⁸ Medea, Jasonekin batera, Eetes aitarengandik ihesi zioala, bere neba Apsirto erail, gorpua zatikatu eta bidean zehar sakabanatu zuen, aitik zatiak jaso bitartean ihes egiteko denbora irabazteko asmoz.

¹⁹ Berriz ere Apsirto nebaren hilketa ari da.

²⁰ Jupiter eta Juno, jainkoen errege-erreginak, zeruko jainko-jainkosak eta, hortaz, tximista eta trumoiaren jabeak.

²¹ Juno (ikus 2. oharra).

²² Suaren eta gerraren jainkoa.

²³ Pax, bakearen pertsonifikazio jainkotiarra.

²⁴ Himeneo, ezkontzaren bermatzaile diren ezkontzaren jainkoetako bat. Venus eta Bakoren semea da, eta zuzi eta girlandekin irudikatu ohi da.

²⁵ Hespero, arratseko eta goizeko izarra: Artizarra. Venusen planeta. Ezkon-kantetan hel egiten zaio.

Dontzeila honen edertasunak garaitzen du neska gazte zekropiarren edertasuna ²⁶ ; baita Taigetoko mendi-tontorretan, harresirik gabeko hirian, mutikoak bezala trebatzen dituzten nesken edertasuna ere ²⁷ ;	75
baita Aoniako uretan ²⁸ eta Alfeo saktratuan bainatzen direnen edertasuna ere. Bere edertasuna harro erakutsiko balu, Esonen seme ²⁹ buruzagiaren aurrean atzera egingo luke bere gurdian tigreak uztartzen dituen tximista zitalaren semeak ³⁰ , baita tripodeak mugitzen dituen dontzeila basatiaren nebak ³¹ ere, eta garaitua izango da, bere anaia Kastorrekin batera, borrokalari bikainena ere: Polux ³² .	80
Hala izan bedi, jainkoak, otoi, emakume honek garaitu ditzala emazte guztiak, gizon honek askogatik garaitu ditzala gizonezkoak.	90

²⁶ Atenasko neskak, Atenasko lehenengo errege izandako Zekroperen ondorengoak.

²⁷ Espartako neskak.

²⁸ Ismeno ibaia.

²⁹ Jason.

³⁰ Bako, Jupiterren semea.

³¹ Apolo, Dianaren neba.

³² Kastor eta Polux. Argonautak. Troiako Helenaren nebak, famatuak izan ziren, hurrenez hurren zaldun eta boxeolari bikainak izateagatik.

Emakumeak korroan jartzen direnean, haren aurpegiak gainontzeko guztienak baino gehiago distiratzen du. Eguzkiak izarren edertasuna deusezten duen bezala; Febek ³³ adarrekin zirkulu baten inguruan ixten denean eta berea ez den argiarekin	95
Pleiadeen artalde ugaria ezkututzen duenean bezala. Feniziar purpuraz tindatzean elur kolorea gorritzen den bezala, goizeko ihintzaz bustiriko artzainak egunaren distira begiratzen duenean bezala.	100
Fasisko alaba izugarriaren ³⁴ ezkon-ohetik askaturik, emazte bridagabetuaren bularra izu-dardaraz eta eskua behartuz besarkatu ohi zenuen horrek, pozez har ezazu Eoliako dontzeila ³⁵ ,	105
oraingoan, lehenengoz, aita-amaginarreben onespenearekin ³⁶ . Liskar-olgetak baimenduta daude gaur, gazteok; batak besteari bertsoak bota, gazteok, bakanak baitira nagusiei txantxak egiteko aukerak.	110
Lieoren seme distiratsu eta noblea, tirtsoa daramazuna ³⁷ , pinu-ezpalak pizteko ordua iritsi da: hauspotu ezazu ospakizun-sua zure behatz zimelduez. Bertso feszeniar satirikoek festa giroa zabaldu dezatela ozen, jendarteak askatasunez olgetan egin dezala.	115
Joan dadila isilik iluntasunerantz atzerritar batekin ezkontzeko ihes egin zuen hura ³⁸ .	115

BIGARREN EKITALDIA

MEDEA-INUDEA

MEDEA.— Nireak egin du. Ezkontza ereserkiak nire belarriak kolpekatu ditu. Zorigaitza hain da handia ezen nekez sinetsi dezaket. Jason hau egiteko gauza izan al da? Aita, aberria eta erreinua kendu dizkit eta bakarrik utzi nau deserrian, gupidagabe? Nire krimenek sugar eta itsaso nola garaitzen zituen ikusi arren, nire merituak erdeinatu al ditu?	120
Gaiztakeria agortu zaidala uste al du? Zalantzati, itsututa, buru gaixotuak hara eta hona narama. Zein izango da nire mendekuaren bidea? Anaia bat izango balu ³⁹ ! Emaztea dauka; harengana zuzendu beharko dut ezpata. Nire zorigaitzarentzat nahikoa izango al da?	125

³³ Ilargia.

³⁴ Medea.

³⁵ Kreusa.

³⁶ Medearen aita, Eetes, Jasonen aurka agertu zen, baina Kreusaren aita, Kreonte, ordea, ez; are gehiago, alabarekin ezkontzera behartu zuen.

³⁷ Himeneo, (ikusi 24.oharra).

³⁸ Medea.

³⁹ Jaseonek anaia bat izango balu, Medeak bere neba (Apsirto) mendekatzeko aukera izango luke.

Pelasgoen hiriek⁴⁰ edo barbaroen hiriek ezagutzen baldin badute zure eskuek ezagutzen ez duten deliturik, orain da antolatzeko unea. Adoretu zaitez zeure krimenak gogoratzuz: erreinu baten altxor handiena lapurtzea⁴¹; dontzeila higuigarri baten laguntzua ezpataz zatikatzea, erraiak bere aitaren aurrera jaurti eta gorpua pontoan barreiatzea⁴²; eta Pelias zaharraren gorputz-atalak brontzezko pertz batean egostea...⁴³ Hainbatetan eta adei gabe isuri dut odola! Baina krimenak egitera bultzatu nauena inoiz ez da sumina izan, maitemin dohakabearen grina baizik. 130 135

Baina zer beste irtenbide zeukan, ba, Jasonek, besteren borondatearen eta legeen menpe baitzegoen?⁴⁴ Bularra eskaini behar zion ezpatari...

Hitz egin egokiroago, bihozmin eroa! Bizi bedi Jason, ahal dela, eta izan dadila nirea, behin izan zen bezala. Ezin bada, bizi bedi halere, eta nitaz oroitzuz ondo balia dezala oparitu diodana⁴⁵. Kreonterena da erru guztia: bere zetroa baliatu du ezkontza ahulak desegiteko, eta ama bere semeengandik banatzeko, eta fideltasunaren lotura estutzen zuten ezkon-botoak hausteko. Soilik haren aurka joan behar da! Zor duen zigorra ordaindu beza! 140 145

Haren etxea errauts-pilo bihurtuko dut. Maleako gailurrak⁴⁶, ontziak birarazi eta beranduntzen dituen hark, sugarren zurrumbilo beltza ikusi ahal izango du.

INUDEA.— Isildu, otoi. Gorde itzazu arrangurak zuretzako, bihozminaren barrenean. Zauri handienak isiltasunez, pazientziaz eta lasaitasunez pairatu dituen izango da, gero, horiek itzultzeko gai. Kalte egiteko gai den haserrea ezkutatzen den haserrea da. Aitortu diren gorrotoek mendeku hartzeko ahalmena galtzen dute. 150

MEDEA.— Zentza eta ezkuta daitezkeen horiek min arinak dira. Atsekabe handiak ezin dira ezkutatu. Aurrez aurre oldartzea gustagarria da. 155

INUDEA.— Geldi ezazu Furia⁴⁷ batena dirudien bulkada hori, alaba. Isiltasunak eta lasaitasunak babestuko zaituzte, nekez bada ere.

MEDEA.— Zoria ausarten beldur da: koldarrak, aldiz, zanpatzen ditu.

INUDEA.— Ausardia une aproposalan agertzen denean bakarrik da laudagarri. 160

MEDEA.— Ausardiarentzat ez dago aproposa ez den unerik.

INUDEA.— Egoera larri honetan ez dago irtenbide bat topatzeko esperantzarik.

⁴⁰ Greziako hiriak.

⁴¹ Urrezko ahari-larrua.

⁴² Apsirto, Medearen neba. Ikusi 18. oharra.

⁴³ Medeak Peliasen alabei sinestarazi zien haien aitaren gorputz zatiak pertz batean egosten bazituzten gai zela gizon zaharrari gaztetasuna emateko. Peliasen alabek Medea sinetsi, aita hil eta gorpua zatitu zuten. Aita berpizten ez zela ikustean, alabek alde egin zuten egindako krimenagatik izututa.

⁴⁴ Kreontek Kreusarekin ezkontzera behartu zuen.

⁴⁵ Jasonen bizitza bera, Medeak salbatu ziona.

⁴⁶ Peloponesoko hegoaldeko tontorra.

⁴⁷ Ikusi 11. oharra.

MEDEA.— Ezer espero ezin duena ez dadila ezergatik desesperatu.

INUDEA.— Kolkidarrek alde egin dute, zure senarrak ez dizu inolako 165
leialtasunik gordetzen. Hain handiak ziren botereak agortu zaizkizu.

MEDEA.— Medea hemen da, ez da agortu. Itsasoa eta lurrak, burdina eta
sugarrak, jainkoak eta tximistak ikusten dituzu bere baitan.

INUDE.— Erregeri beldur izan behar zaio.

MEDEA.— Nire aita errege izan zen.

INUDE.— Ez al zara haren armenbeldur?

MEDEA.— Ezta lurretik erneko balira ere⁴⁸.

INUDE.— Hilko zara.

MEDEA.— Hori da nahi dudana.

INUDE.— Egin ihes.

MEDEA.— Ihes egiteaz damutu nintzen behin. 170

INUDEA.— Medea...

MEDEA.— Hori izango naiz.⁴⁹

INUDEA.— Ama zara.

MEDEA.— Ikusten duzu norentzako naizen ama.

INUDEA.— Zalantzan zaude ihes egin ala ez?

MEDEA.— Ihes egingo dut, baina aurretik mendeku hartuko dut.

INUDEA.— Zure atzetik joango da, mendekatzeko.

MEDEA.— Hori atzeratzeko moduren bat topatuko dut.

INUDEA.— Kontuz diozunarekin; utzi mehatxuak, burugabe horrek, eta baretu
zure bulkadak. Egoerara moldatu beharra dago. 175

MEDEA.— Zoriak baliabideak kendu ahal izango dizkit, adorea ez, ordea. Baina
noren astinduak kirrinkarazidu jauregiko atea? Kreonte bera da, harro baino
harroagoa, pelasgoak⁵⁰ gobernatzen dituelako.

⁴⁸ Jasonek dragoiaren haginak lurrean sartu zituenean lurretik erne ziren gudariez ari da. Jasonek Medeari
esker garaitu zituen.

⁴⁹ Medea bere izenarekin eta izen horren identitatearekin identifikatzen da, “Medea izango naiz” esango
balu bezala, Medearen izenak esan nahi duen guztiarekin.

⁵⁰ Grekoak.

KREONTE-MEDEA

KREONTE.— Medeak, Kolkidako Eetesen zorigaiztoko alabak, nire lurretan jarraitzen du oraindik? Azpijokotan ari da; ezagunak dira bere gaiztakeria eta bere abilezia. Nor errespetatuko du? Nor utziko du bakean? 180

Izurri hori ezpataz desagerraraztekotan egon nintzen, baina suhiaren erreguek hartu zuten gaina. Bizitzeko aukera eman zitzaion; utz diezaiola nire lurrak beldurtzeari eta joan dadila bakean. 185

Nigana dator, harro, mehatxatzaile; aurrez aurre hitz egitera datorkit. Aldara ezazue, morroiok, nigandik urrun; ez nazala ukitu. Isiltzeko agindu. Ikas dezala behingoz errege baten aginduak pairatzen. 190

Alde hemendik segituan, kendu nire paretik, munstro anker izugarri hori.

MEDEA.— Zein da erbestearekin zigortu nahi den krimena edo hutsegitea?

KREONTE.— Kanporatua izateko arrazoiei buruz galdezka ari da, andre errugabe hau!

MEDEA.— Epaile arituko bazara, aurrena entzun nazazu; errege arituko bazara, behartu nazazu zure agindua betetzera.

KREONTE.— Zuzena nahiz zuzengabea, erregeren agindua beteko duzu. 195

MEDEA.— Zuzena ez den erregealdi batek ez du luze iraungo.

KREONTE.— Zoaz eta eraman zure ahuenak kolkidarrei.

MEDEA.— Banoa. Itzul nazala ekarri ninduen horrek.

KREONTE.— Berandu datoz zure hitzak. Nire erabakia aldaezina da.

MEDEA.— Aurkako alderdiaren hitza entzun gabe epaia eman duena, epaia zuzena izan arren, ez da zuzena izan. 200

KREONTE.— Zuk Pelias entzun al zenuen, zigorra jaso zuenean? Baina, hitz egin ezazu. Aukera bat emango diogu zure auzi gailen horri.

MEDEA.— Neure jauregian ikasi nuen zein gogorra den arima asaldatuarentzat sumina alde batera uztea! Eta bere esku handiusteak zetro baten gainean jarri dituen ororen ustez, erregearen berezko jokaera dela hartutako erabakietan inoiz atzera ez egitea! Orain, ezbehar tamalgarri baten ondorioz akitua nago, erbesteratua, erreguka, bakarrik, alde batera utzia, alde guztietatik eraitsia... baina garai batean nire aitaren nobleziarekin dirdiratu nuen, eta leinu distiratsua jaso nuen nire aitonarengandik, Eguzkiarengandik. 205 210

Fasis ibaiaren meandro goxoek ureztatzen duten oro; itsasoko kresala ur zingiratsuetan gezatzen den lurretan, Eszitiako Pontoak bizkarrean ikusten duen oro; Termodonteren ur-bazterrek inguraturik eta peltaz armatuta bizi diren 215

senargabeen kohorteak izutzen duen lurraldea⁵¹; hori guztia dago nire aitaren boterearen mende.

Jatorri nobleko, zorientsu, boteretsu dirdiratu nuen erregina baten distiraz: garai hartan, nire ezkon-ohea eskatzen zuten orain eskaria jasotzen duten horiek. Zori suntsikor eta apetatsua oldartu zitzaidan, nire erreinutik erauzi eta erbestera bidali ninduen. Fida zaitez, ba, zeure erreinuaz; zoriak naiherara eta harat-honat eramango du haren botere ahaltua. 220

Erregeek badaukate egunen joanak ostuko ez dien bertute bikain eta goren bat: zorigaitzokoari laguntzea, eta erregutzen duenari etxearen babes ematea.

Kolkidako erreinutik ateratzea lortu nuen gauza bakarra hau da: nire kabuz salbatu nuen aintza handi hura, Greziako lore ospetsua, akaiar herriaren gotorleku eta jainkoen ondorengo izan dena⁵². 225

Nire oparietako bat Orfeo da, bere kantuz harkaitzak biguntzen eta oihanak herrestatzen dituena⁵³; nire opari bikoitza dira Kastor eta Polux⁵⁴; eta Boreasen semeak⁵⁵; eta Lintzeo, begiradaz Pontoa zeharkatu eta urruti dauden gauzak ere ikusten dituena; baita Minia guztiak ere⁵⁶. 230

Eta buruzagien buruzagia aipatu ere ez dut egingo⁵⁷, beragatik ez didazue ezer zor eta; beragatik ez diot inori ezer eskatuko. Gainerako guztiak itzuli nizkizuen, eta bakar hau ekarri nuen niretzat. 235

Oldartu zaitez orain nire aurka, eta gaiztakeria guztiak aurpegiratu niri. Aitortuko dut. Egotzi ahal didazuen krimen bakarra hau da: Argo itzuli izana.

Pentsa! Dontzeila hark bere izen ona eta bere aita hobetsi izan balitu: pelasgoen lur guztia suntsitua izango zen, buruzagi eta guzti; zure suhia izango zen erortzen lehena, zezen basatiaren mutur gartuaren aurrean. 240

Nire auzia nahi duen moduan zapaldu dezala zoriak; ez naiz damutzen hainbeste erregeren loria salbatu izanaz.

Eskuetan dituzu egindako krimenetatik jaso ditudan sari guztiak. Erruztatua kondenatu ezazu, hala nahi baduzu, baina itzul iezaiozu bere krimena. Erruduna naiz, aitortzen dut, Kreonte. Hori bazenekien, zure belauna ukituz zure eskuineko eskuaren babes eskatu nizunean. Beste behin eskatuko dizut zoritarrentzako txoko bat lur honetan, babeslekua eta ezkutaleku ezdeus bat. Hiritik kanporatu nahi banauzu, esleitu niretzat tokitxo bat, zure agindupeko lurren bazterrean bada ere. 245 250

KREONTE.— Ez naiz zetroa bortxaz erabili eta miseriak harropuztasunez

⁵¹ Amazonak Termodonte ibaiaren ertzean bizi ziren.

⁵² Argonautak.

⁵³ Argonautetako bat. Greziako zibilizazioaren fintasunaren sinboloa, eta baita musikaren boterearena ere.

⁵⁴ Argonautak. Ikusi 32. oharra.

⁵⁵ Kalais eta Zetes.

⁵⁶ Argonautak.

⁵⁷ Jason.

zapaltzen dituen horietakoa, eta uste dut hori argi erakutsi dudala, nire suhia izateko aukeratu baitut erbestera akitu eta arras izutu bat, Tesaliako errege Akastok⁵⁸ bilatzen baitzuen, zigortu eta hiltzeko asmoz. 255

Bere aitaren heriotza salatzen du, zaharra zelako dardarti eta urtetsu zelako baldarturik zenean hil baitzuten. Eta salatzen du bere arrebak, aitarenganako errukiz eta zure iruzurren erruz, krimen krudel adeigabe bat egitera ausartu zirela, eraildako agurearen gorputz-atalak txiki-txiki eginez. 260

Zuk zure auzia alde batera uzten baduzu, Jasonek aukera du berea defendatzeko: inolako odol isurtzeak ez du bere errugabetasuna zikindu, ez zuen eskua ezpatara hurbildu eta aratz iraun zuen, zure azpijokoetatik urrun. 265

Zu, azpijoko gaizto okerren sortzaile zaren hori, emakume baten maltzurkeria eta gizon baten indarra izanik edozertara ausartzen zarena, zure izen onak axola ez dizuna, zu, joan zaitez, arazu nire erreinua, eta eraman zurekin belar hilgarriak, utz itzazu nire hiritarrak beldurretik aske; eta egonlekua beste nonbait finkatuta daukazunean, goga itzazu jainkoak orduan. 270

MEDEA.— Ihes egitera behartzen nauzu? Horretarako, itzul iezadazu itsasontzia, edo itzul iezadazu bidaidea. Zergatik agintzen didazu bakarrik ihes egiteko? Ez nintzen bakarrik etorri. Gerren beldur baldin bazara, kanporatu gaitzazu biok zure erreinutik. Bi errudunen artean, zergatik egiten dituzu bereizketak? Haren mesedetan hil zen Pelias, ez nire mesedetan. Gehitu horri nire ihesa, nire lapurretak, nire aita uztea eta nire neba txikitu izana⁵⁹; are senarrak bere emazte berriei azaltzen dien guzti hori, ez da niretzat izan. Errudun jokatu dut askotan, baina inoiz ez nire mesederako. 275 280

KREONTE.— Nolatan ez zara oraindik abiatu? Zergatik ari zara berritsukeriekin luzamendutan?

MEDEA.— Banoa, eta azken erregu bat egin nahi dizut, otoi, alde egitean: amaren erruak ez ditzala nire seme hobengabeak kaltetu.

KREONTE.— Alde! Nire altzoan hartuko ditut, aita batek bezala, nireak bailiran.

MEDEA.— Nik, aldeko iragarpenen babesaren duen errege-ezkontza honen izenean, etorkizuneko itzaropenen izenean, eta zori apetatsuak mota guztietako gorabeherekin astintzen dituen erreinuen izenean, erregutzen dizut: utz iezadazu alde egin aurretik denbora pixka bat, semeei azken muxuak emateko, betirako gogoratu dezaten ziurrenik dagoeneko hiltzen ari den ama. 285

KREONTE.— Azpijokoren bat egiteko eskatzen didazu denbora. 290

MEDEA.— Zein azpijokoren beldur izango zara, hain denbora estuan?

KREONTE.— Min eman nahi duenean, gaiztoarentzat ez dago denbora

⁵⁸ Peliasen semea.

⁵⁹ Apsirto.

estuegirik.

MEDEA.— Andre dohakabe bati negar egiteko denbora pixka bat ukatuko diozu?

KREONTE.— Barreneraino sartuta daukadan beldurrak zure erreguen aurka egiten badu ere, egun bakar bat emango dizut erbestera joateko presta zaitezen. 295

MEDEA.— Gehiegi da, epea laburtu dezakezu. Ni ere presaka nabil.

KREONTE.— Zure lepoarekin ordaindu beharko duzu, Febok⁶⁰ egunaren argia ekartzen duenerako Istmotik aldendu ez bazara.

Ezkontzaren zeremoniek nire presentzia eskatzen dute; Himeneoren⁶¹ omenezko 300 egun honek nire otoitzak eskatzen ditu.

KORUA

Lar ausarta izan zen itsaso traidoreak
hain hauskorra zen txalupa hartan zeharkatu zituen lehena⁶²;
eta, sorterrria bizkarrean geratzen zela ikusiz,
haize aldakorraren esku utzi zuena bere bizitza;
eta, urak norabide ziurrik gabe zeharkatuz, 305
ohol arin batzuetaz fidatzea lortu zuena⁶³,
bizitzaren eta heriotzaren bideak
muga finegi batez bereiziz.

Orduan, inork ez zituen konstelazioak ezagutzen,
inork ez zekien zerua apaintzen duten izarrez baliatzen. 310
Orduan, ontziek ez zekiten Hiade⁶⁴ euritsuak ekiditen, ezta Ahuntz Oleniarraren
argiak ere⁶⁵,
ez eta Bootes zaharrak nagikeriaz
jarraitu eta zuzentzen duen Hartz Handiaren orga ere⁶⁶.
Orduan, ez Boreasek, ez Zefirok, ez zuten izenik⁶⁷. 315

Ausartu zen Tifis mugarik gabeko pontoan
belak hedatzera
eta haizeei lege berriak ematera: 320
batean bela puztuen sokak tenkatu,
bestean bela-lokarriak laxatu eta haizeak zeharka jaso;
batzuetan, badaezpada, belazurruna masta erdian jarri zuhurtasunez;
bestetan goi-goian amarratu, 325

⁶⁰ Apolo, eguzkiaren jainkoa.

⁶¹ Ikusi 24. oharra

⁶² Tifis.

⁶³ Argo.

⁶⁴ Nabigatzea arriskutsu bihurtzen zuten udaberriko euriteen garaian ikusten ziren izarren multzoa.

⁶⁵ Amaltea ahuntzaren izarra, Zeus jainkoari bularra eman ahuntzarena.

⁶⁶ Bootesen konstelazioa.

⁶⁷ Boreas, ipar haizea; Zefiro, mendebaldeko haizea.

nabigatzaileak, anbizio handiegiarekin,
 haize guztien bultzada irrikatzen duenean
 eta han, belaren goiko muturrean, inarrosten direnean
 zurgaiako oihal gorriak.

Gure arbasoek zintzotasun-garaiak ezagutu zituzten,
 guztiz maltzurkeriarik gabekoak. 330
 Bakoitzak bere itsasertza soilik ukitzen zuen, lasaiki,
 eta aitaren lurretan zahartzen zen,
 gutxirekin aberats, beste ondasunik ezagutu gabe
 sorterriko lurak ematen zituenak baino.

Mundua ondo banatzeko itunak 335
 Tesaliako pinu batek hondatu zituen⁶⁸;
 Pontoa astinduarazi zuen
 eta ordura arte aparte zegoen itsasoa
 gure beldurretako bat bilakatu zen.

Zigor gogorrek pairatu zituen ontzi mutiriak,
 arrisku handiei egin behar izan zien aurre 340
 itsaso sakonaren hesi diren bi mendiak
 bata bestearen aurka oldartu zirenean, bat-batean⁶⁹;
 trumoi baten orrua egin zuten,
 eta bien artean zanpatu zen urak
 hodeiak eta izarrak ere zipriztindu zituen; 345
 zurbil geratu zen Tifis ausarta
 eta bere esku ahulduak bridak askatu zituen;
 Orfeoren,⁷⁰ lira geldi geratu zen eta bera isildu,
 eta Argok berak ahotsa galdu zuen⁷¹.

Eta Siziliako Peloroko dontzeilak, 350
 sabelaldea txakur amorratuz inguratua duenak⁷²,
 aho guztiak aldi berean zabaldu zituenean?
 Nork ez zuen izua gorputz osoan zehar sentitu,
 munstro bakar baten hainbeste zaunkaren aurrean?

Eta zorigaiztoko izurri hura
 ahots ezti batez Ausoniako itsasoa otzantzen saiatu zenean⁷³, 355
 eta Orfeo traziarra, bere zitara pieriarrarekin⁷⁴ durundatuz,
 Sirena —kantuekin ontziak atxikitzen zituena— 360
 bere atzetik joatea lortzekotan egon zenean?
 Zein izan zen horrelako bidaia baten saria?
 Urrezko ardi-larru bat eta Medea, itsasoa baino gaitz kaltegarriagoa;

⁶⁸ Argo itsasontziak naturaren legeak hautsi zituen, ordura arte itsasoak banatzen zituen lurraren eta itsasertzen arteko komunikazioa zabaldu zuenean.

⁶⁹ Sinplegade harkaitzak, Bosforoan kokatuak, Itsaso Beltzaren sarreran. Legendak dio bidea ixteko batak bestearen aurka talka egiten zutela. Argo izan zen haien artetik igarotzea lortu zuen lehena eta, ordutik, harkaitzak finko geratu ziren.

⁷⁰ Ikusi 53. oharra.

⁷¹ Ateneak Argo ontziari hitz egiteko gaitasuna eman zion.

⁷² Eszila, Zirze sorginak itsas-munstro bihurtu zuen neska. Txakur-buruak zituen gerrialdean eta oinetan.

⁷³ Uhandreak.

⁷⁴ Pieria, Greziako iparraldeko eskualdea, Orfeo eta musekin lotzen dena.

sari egokia lehenengo ontziarentzat.

Pontoa menderatua dago jada
eta lege guztiei egiten die men; 365
ez da gehiago behar Argo, Palasek eraikia,
errege familiako arraunlariak daramatzana;
edozein ontzi txiki dabil itsaso zabalean.

Muga oro ezabatu da
eta hiriek lur berrietan jarri dituzte harresiak. 370

Ezer ez da zegoen toki berean geratu,
lurbira ibiltzeko modukoa denetik.
Indiarrek Aras izoztuko uretatik edaten dute,
persiarrek Elbako eta Rineko uretatik. 375
Urteen buruan iritsiko da garaia
non ozeanoak munduaren mugak askatuko dituen
eta lurra luze-zabal zabalduko den,
eta Tetisek⁷⁵ mundu berriak aurkituko ditu guretzat
eta munduaren amaiera ez da gehiago Tule izango⁷⁶.

HIRUGARREN EKITALDIA

INUDEA-MEDEA

INUDEA.— (*Medeari*). Umea, nora zoaz hain presaka eta haserre etxetik kanpo? 380
Geldi, eutsi suminari eta oldarrari.

(*Aparte*). Trantzean dagoen menade batek⁷⁷, jainko batek hartuta dagoenean,
bere onetik irtenda, Pindo elurtuan gora edo Nisako⁷⁸ tontorrera egiten duenean
bezala, horrela dabil alde batetik bestera aztoramen zoroan, bere aurpegiak 385
furfuria eroa erakusten duela.

Bere aurpegia sutan da, hasperen egiten du biriken sakonetik, oihuka ari da, bere
begiak bustitzen dituzten malkoek gainezka egiten dute, pozarren agertzen da
irribarrez: era guztietako emozioak agertzen ditu.

Mugitu gabe geratzen da, mehatxu egiten du, bor-bor egiten du, arranguratzen 390
da, ahuen egiten du.

Zein norabide hartuko du arimaren zama honek? Zein izango da bere mehatxuen
jomuga? Non lehertuko da olatu hau? Furfuriak gainezka egiten dio. Bere
barrenean biraka dabilena ez da krimen soil eta arrunt bat. Orain arte egin
dituenak gaudituko ditu; ezagunak ditugu, bestetatik, bere haserrearen seinaleak.

⁷⁵ Itsasoaren pertsonifikazioa.

⁷⁶ Munduaren iparraldeko azken tokitzat hartzen zen.

⁷⁷ Menadeak Dionisoren gorteko emakumeak ziren. Orkatz-larruz jantzita, eskuetan tirtso, zuzi eta mahats-mordoak zituztela, basoetan barrena dantzatzen ziren, ainuri eginez.

⁷⁸ Bakorekin (Dionisorekin) lotzen den Indiako mendia.

Gainera datorkiguna itzela da, basatia, ankerra, adeigabea; Furfuriaren⁷⁹ aurpegia 395
ikusten ari naiz. Jainkoek ezeztatu bitzate nire beldurrak!

MEDEA.— Ari bazara, dohakabe hori, gorrotoari neurria ezarri nahian, har
ezazu maitasunaren neurri berbera. Mendekurik saiatu gabe jasan behar al ditut 400
errege-ezkontza honen zuziak? Hainbeste itzulingururen ostean onartu eta lortu
den egun hau, iritsi den modu berean ihes egingo al du?

Erdian kokatzen den lurrak zerua orekan mantentzen duen bitartean, eta izarrarte
disdiratsuak ohiko moduan biratzen duen bitartean, eta harea-pikorak
zenbakaitzak diren bitartean, eta eguna eguzkiaren atzetik eta gaua izarren atzetik
datozen bitartean, poloak bi Hartzak busti gabe birarazten dituen bitartean⁸⁰, eta 405
ibaiak itsasora isurtzen diren bitartean, nire furfuriaren mendeku gosea ez da
inoiz asetuko, eta etengabe haziko da.

Piztiren baten krudelkeriak, Eszilak⁸¹, Ausoniako eta Siziliako itsasoa irensten
dituen Karibdisek⁸², edo Titan itolarrian zanpatuta daukan Etnak⁸³... zeinek 410
auspotuko ditu nireak bezain izugarriak diren mehatxuak?

Ez uholde-urek, ez itsaso ekaiztsuak, ez Koro haizeak haserretutako Pontoak,
ezta haizeak suspertutako sugarrek ezingo dituzte nire oldar eta haserrea gelditu:
dena sutsitu eta hankaz gora jarriko dut.

Izan al zuen hark Kreonteren beldurrik, edo Tesaliako buruzagiaren kontrako 415
gerraren beldurrik⁸⁴? Benetako maitasuna ez da inoren beldur.

Beharturik etsi eta errenditu bada ere, bazuen bere emaztearengana jo eta agur-
hitz batzuekin kontsolatzea. Horrek ere beldurtu zuen, ausart hori. Zalantzarik
gabe, erregearen suhiak bazeukan nire deserriratze samina atzeratzeko aukera, bi 420
seme izanagatik egun bakar bat eman baitidate. Ez naiz epe laburraz kexu. Aski
eta sobera izango da. Gaur egingo da, bai, gaur egingo da, beste inoiz isilpean
gorde ezin izango den hori. Jainkoak erasoko ditut eta mundua dardaraziko dut.

INUDEA.— Lasaitu zaitetz, ugazabandrea, ezbeharrak asaldatu zaitu eta; sosega 425
itzazu bulkadak.

MEDEA.— Nirekin batera mundua suntsitzen eta hondakin bihurtzen ikustea
izango da nire sosegu bakarra: nirekin batera dena desager dadila. Atsegina da
hiltzean beste batzuk norberarekin eramatea.

INUDEA.— Pentsa ezazu, burubide horretan tematzen bazara, zeren beldur izan 430
beharko zaren. Inork ezin du boteretsua eraso inolako arriskurik gabe.

⁷⁹ Ikusi 11. oharra.

⁸⁰ Bi hartzen konstelazioak urte osoan zehar egoten dira zeruan ikusgai, eta inoiz ez dute ortzi-muga gainditzen.

⁸¹ Ikusi 72. oharra.

⁸² Itsas-munstroa, egunean hirutan ur kantitate handi bat eta urak zekarren guztia irensten zuena.

⁸³ Entzelado erraldoia: Ateneak Siziliako irla gainera bota zion, Etnaren barruan gatibu utziz. Erraldoiak eta Titanak bata bestearekin nahastu ohi ziren.

⁸⁴ Akasto.

JASON-MEDEA

JASON.— (*Aparte*). Oi, patua, beti krudela! Eta zori latza, beti gaiztoa, zigortzen duenean, zein bihozbera denean! Arriskuak baino okerragoak diren konponbideak topatzen dizkigu maiz jainkoren batek!

Emazteari merezi zuen fideltasuna gorde nahi izan banio, neure lepoa eskaini beharko niokeen heriotzari; hil nahi ez banuen, fideltasuna hautsi behar nuen, dohakabe honek. Fideltasunasunari gailendu zitzaiona ez zen beldurra izan, aita baten zintzotasun arduratua baizik, semeen heriotzak jarraituko baitzion gurasoenari. 435

Justizia sakratua⁸⁵, zeruan baldin bazaude, zure jainko-botereari eskatzen diot lagundu diezadan eta lekuko izan dadin: semeek aita garaitu dute. Areago, hark ere, bihotz ankerra duen arren eta uztarria pairatzen ez duen arren, ezkon-ohearen aurretik semeak salbatzea nahiagoko lukeela uste dut. 440

Bere suminari erreguz aurre egitea erabaki dut.

Hor da, ikusi nauen bezain laster asaldatu egin da, sutan dago, bere herra erakusten du: daukan bihozmin guztia bere aurpegian islatzen da. 445

MEDEA.— Ihes egin nuen, Jason, eta ihesi noa berriz. Bizitokia aldatzea ez da gauza berria, bai ordea ihesaren arrazoia: lehen zugatik egiten nuen ihes. Aldenduko naiz, banoa. Eta zure Penateak⁸⁶ uztera behartzen nauzunez gero, zeinengana bidaliko nauzu? Fasis eta Kolkidarantz abiatu behar al dut, nire aitaren erreinura, nire anaiaren odolak busti zuen lurraldera? Zein lurretara joatea nahi duzu? Zein itsaso seinalatzen didazu? Pontoko itsasoaren ahutzak, zeinak zeharkatuz, amorante baten atzetik nindoala, errege-armada noblea ekarri bainuen bueltan, Sinplegadeen artetik igaroz⁸⁷? Iolko txikirantz joango naiz, ala Tesaliako Tenpera? 455

Zuretzat zabaldu nituen adina bide itxi nituen niretzat. Nora bidaltzen nauzu? Erbesteratu bati erbestaldia inposatzen diozu, eta ez diozu erbesterik eskaintzen. Alde egin beharra dago. Erregearen suhiak agindu du. Ez dut aurka egingo. 460

Ezar ieazakidazu zigor krudelak; merezi ditut. Utzi erregearen haserreak zure ohaidea zigor odoltsuekin zanpatzen, eskuak katea astunez zamatu eta leize baten gau amaigabea giltzaperatzen: sufrituko dudana merezi dudana baino gutxiago izango da.

Esker txarreko gizon horrek ekar ezazu gogora zezen haren suzko arnasa; eta, herri menderakaitz horren beldur basati haien erdian, Eetesen basapiztia gartsua, gizon armatuak ernetzen zituen zelai hartan; eta ustekabeko etsai hark jaurtitako 465

⁸⁵ Astrea, justiziaren jainkosa.

⁸⁶ “Zure etxea” esango balu bezala, Penateak etxearen jeinu babesleak baitziren.

⁸⁷ Ikusi 69. oharra.

geziak, lurretik sortutako soldadu haiek, nire agindupean, bata bestea hil 470
zutenean, elkarrekiko sarraskian⁸⁸.

Gehitu horri Frixoren ahariaren larru desiratua; eta beharturik lokartu zen
munstro hura, aurretik sekula lorik egin gabea; nire anaia⁸⁹, heriotzari entregatua,
behin eginik bat baino gehiago izan zen krimen hartan; eta alaba haiek, abileziaz 475
engainatu nituenak berpiztuko ez zen agure hura zatikatzeraz ausartzeko⁹⁰.

Beste batentzako erreinuak bilatuz abandonatu nituen nireak.

Zure itxaropena diren semeen izenean eta dagoeneko badaukazun etxearen
izenean, garaitutako munstroen izenean, zugatik neurririk gabe erabili izan
ditudan eskuen izenean, iragan diren beldurren izenean, nire ezkontzaren lekuko 480
izan ziren zeruaren eta itsasoaren izenean⁹¹, errukitu zaitez nitaz. Zoriontsu zaren
horrek, emaiozu aukera berdina erregutzen ari den honi.

Eszitiarrek urruneko lurretan⁹² eta are Indiako herri kiskalietan ere atzemandako
aberastasunek jauregian gainezka egiten dutenez, basoak urrez apaintzen 485
ditugu⁹³. Haietako bat ere ez nuen erbestera ekarri; nire anaiaren gorputz zatiak
baino ez. Eta horiek ere zugatik sakrifikatu nituen. Zure aldean ez zuten baliorik
ez nire jaioterriak, ez nire aitak, ez nire anaiak, ezta nire izen onak ere: ezkonsari
horrekin ezkondu nintzen. Itzul iezaiozu ihes egiten duenari berea dena.

JASON.— Kreontek, sututa, hil nahi zintuenean, nire malkoei esker onartu zuen 490
zu erbesteratzea.

MEDEA.— Zigortzat neukan baina, bistan denez, erbestea opari bat da.

JASON.— Joateko baimena duzun bitartean, ihes egizu eta aldendu hemendik;
erregeen haserrea beti izaten da zorigaiztokoa.

MEDEA.— Aholku hori ematen didazunean, Kreusari mesede egiten ari zara: 495
zure amorante gorrotagarria paretik kentzen diozu.

JASON.— Nire amodio-interesak aurpegiratzen dizkit Medeak?

MEDEA.— Eta zure hilketak, eta zure iruzurrak.

⁸⁸ Argonautak Kolkidara iritsi eta Jasonek Eetes erregeari urrezko ardi-larrua eskatu zionean, honek hurrengo baldintza jarri zion: brontzezko apaxak zituzten eta arnastean sua botatzen zuten bi zezen uztartzea, haiekin zelai bat goldatzea, eta, azkenik, herensuge baten haginak ereitea. Medeak, Eetesen alabak, Jason ez maitemindu zenez, laguntza eskaini zion, berarekin ezkontzearen truke. Zaurtezin bihurtuko zuen baltsamo bat eman zion eta ohartarazi zuen herensugearen haginak lurrean sartzean bertatik gudari armatuak erneko zirela, baina haiek nola garaitu azaldu zion: gudarien erdira harri bat jaurtiz gero, elkar hilko zuten. Lorik inoiz egiten ez zuen ehun begidun herensuge batek gordetzen zuen urrezko ardi-larrua. Bere magia erabiliz Medeak herensugea lokartu zuen eta horri esker lortu zuen Jasonen urrezko ardi-larrua eskuratzea.

⁸⁹ Apsirto.

⁹⁰ Peliasen alabak, Pelias zatikatu zutenak (ikus 43. oharra).

⁹¹ Jason eta Medea Feaziarren uhartean ezkondu ziren.

⁹² Turkiar jatorriko herria.

⁹³ Urrezko ardi-larrua arte batetik zintzilik zegoen.

JASON.— Azkenean, zein krimen leporatu ahal didazu zuk niri?

MEDEA.— Nik egindako guztiak.

JASON.— Falta zen bakarra: ni ere zure krimenen errudun bihurtzea.

MEDEA.— Zureak dira, zeureak: krimen batengatik etekina ateratzen duena da 500
krimenaren egilea... Zure emazteari aho batez doilor izatea leporatzen badiote
ere, defenda ezazu zuk, zeuk bakarrik bada ere, esazu errugabea dela. Zuretzat
errugabe beharko luke zuregatik errudun den orok.

JASON.— Lotsaz jaso den bizitza bat gorrotagarria da.

MEDEA.— Bizitza bat lotsaz jaso duenak ez dio zertan eutsi. 505

JASON.— Hobe zenuke haserreak asaldatutako bihotz hori menderatzea. Sosega
zaitez, zure semeen izenean.

MEDEA.— Arbuiatu egiten ditut, uko egiten diet, ez ditut nire semetzat
aitortzen... Kreusak nire semeei haurrideak emango al dizkie?

JASON.— Bai, hark, erreginak, haurrideak emango dizkie deserritu batzuen
semei; hark, boteredunak, zorigaitzak jotako batzuei.

MEDEA.— Feboren ondorengoak Sisiforen ondorengoekin⁹⁴, leinu itzaltsu bat 510
leinu lotsagarri batekin nahastuko den egun gaiztoa ez dadila inoiz iritsi
dohakabe horientzat.

JASON.— Zergatik tematzen zara, zorigabe hori, zu eta biok, gu biok
hondamendira eramaten? Alde hemendik, otoi.

MEDEA.— Kreontek ere entzun ditu nire erreguak. 513

⁹⁴ Febo Medearen aitona da, eta Korinto hiria Eoloren seme den Sisifok sortu zuela esaten da.

PERTSONAIEN AUKIBIDEA

Akasto: Pelias erregearen semea. Iolkoko (Tesalia) errege bihurtu zen Pelias hil ondoren. (Ikus. *Pelias*). Argonauta ere izan zen.

Amazonak: emakumezko gudariez osatutako nazio bat zen eta Euxino itsasoaren kostatik hurbil bizi ziren. Arkulari trebeak ziren eta eskuin bularra mozten zuten arkuak hobeto erabiltzeko. Tribua emakumezkoek bakarrik osatua zegoen, baina arraza galdu ez zedin urtean behin festak ospatzen zituzten eta bertara gizonezkoak gonbidatzen zituzten, haiekin ugaltzeko.

Apolo: Besteak beste, argiaren eta eguzkiaren jainkoa. Diana jainkosaren neba. Delfosen tripode batean esertzen zen pitonisa baten bitartez agertzen zituen orakuluak.

Apsirto: Medearen anaia eta Eetesen semea. Medeak erail zuen Jasonekin batera Eetesengandik ihesi zihoala. Ondoren gorpua zatitan banatu eta bidean zehar barreiatu zuen, Eetes gorputz atalak jasotzen atzeratu zedin.

Argo: Jasonen kapitaintzapean Argonautek (miniak ere deituak) tripulatu zuten itsasontzia, itsas zabaleko lehenengo nabigazio-espeditzioa gauzatuz, Iolkotik Kolkidara. Argosek eraiki zuen Atenearen zuzendaritzapean, eta ordura arte sekula ikusi gabeko potentziadun ontzia zen, 50 arraunlarirentzako prestatua. Eraikitzeko Argosek Pelio mendiko egurra erabili zuen, Jason hezi zen mendikoa, hain zuzen ere. Ontziaren branka, aldiz, arte sakratu baten egurraz egina zegoen; Ateneak berak zizelkatu zuen, eta hitz egiteko eta profeziak egiteko gaitasuna eman zion. Arotzaren omenez, ontziari Argo izena jarri zioten ('distiratsua', 'bizkorra').

Argonautak: Miniak ere deituak. Argo ontziaren tripulatzaileak. Jasonen kapitaintzapean Argonautek tripulatu zuten itsasontzia, itsas zabaleko lehenengo nabigazio-espeditzioa gauzatuz (Iolkotik Kolkidara).

Atenea: Jainkosa. Argo ontziaren eraikuntzaren buru izan zen eta Tifisi irakatsi zizkion hura nabigatzeko jakintza guztiak.

Bako: Jupiter eta Semeleren semea.

Boreas: Kalais eta Zetesen aita.

Diana: Jainkosa birjina eta ehiztaria, Apolo jainkoaren arreba.

Eetes: Medearen aita, Kolkidako erregea eta Eguzkiaren semea. Argonautek, Medearen laguntzaz, urrezko ardi-larrua ostu zioten eta, ondorioz, alaba erbestera zuen.

Eson: Jasonen aita, Peliasen anaiaordea.

Ezila: Zirze sorginak itsas-munstro bihurtu zuen neska. Txakur-buruak zituen gerrialdean eta oinetan. Mesinako itsasartean kokatzen zen.

Etna: Siziliako sumendia, Vulkanoren sutegia eta Ziklopeen lantokia. Jupiterren tximistak bertan forjatu ziren. Etna sumendi barruan Entzelado erraldoia gatibu zegoen, Ateneak Siziliako irla gainera bota zionetik.

Eguzkia: Titan bat da. Medearen aitona, Eetesen (Medearen aitaren) aita. Helios jainkoaren eta Perseis ozeanidearen semea. Egunero, lau zaldi bizkorrez tiratutako suzko gurdi batean, zerua zeharkatzen zuen.

Febe: Ilargia.

Febo: Apolo, eguzkiaren jainkoa eta Feberen neba.

Furiak: Erromatar mitologian, dibinidade ktonikoak (inframundukoak). Justiziaren ministroak ziren, mendekuaren jainkosak, batez ere senideen erailketak gertatzen zirenean; itun bat hausten zenean eta zinauste eta parrizidio kasuetan esku hartzen zuten. Hiltzaileak etengabe oinazetzen zituzten, horregatik lotu izan ohi dira eromen klase batzuekin. Kontzientziaren alhaduraren pertsonifikazioa ziren. Hildakoen izenean mendeku hartzen dute, bereziki eraildakoen izenean. Greziako Erinisekin parekatu ohi dira.

Hekate: Magiaren eta ilargiaren jainkosa arkaikoa eta titanide ktonikoa (inframundukoa; Kaos, Pluton eta Proserpinarekin batera). Bere izenak grekeraz “urrundik aritzen dena” esan nahi du. Neurrigabeko boterea dauka, normalean babesle eta onuragarria. Hiru aurpegirekin irudikatzen da (“triformis” edo “hiru aurpegiduna”), baita hiru gorputzekin ere, batzuetan. Bidegurutzeetan, magiarekin lotura estua zuten tokiak, Hekateren estatuak jarri ohi ziren. Jasonek Medeari Hekateren tenpluan zin egin zion fidela izango zitzaiola.

Hespero: Arratseko eta goizeko izarra: Artizarra. Venusen planeta. Ezkon-kantetan hel egiten zaio.

Himeneo: Venus eta Bakoren semea. Ezkontzaren bermatzaile diren ezkontzaren jainkoetako bat. Zuzi eta girlandekin irudikatu ohi da.

Juno: Ezkontzaren jainkosa. Jupiterren arreba eta emaztea. Ezkontzaren bermatzaile diren ezkontzaren jainkoetako bat. Luzina ezizenaz ere hel egiten zaio (Ikus. *Luzina*)

Jupiter: Jainkoen erregea eta zeruko jainkoa eta, hortaz, tximista eta trumoiaren jabea. Junoren neba eta senarra. Ezkontzaren bermatzaile diren ezkontzaren jainkoetako bat da.

Kalais: Boreasen eta Oritiaren (Atenasko erregearen alaba) semea eta Zetesen anaia. Argonautetako bat.

Kaos: Hasierako ezerezaren pertsonifikazioa, ordena ororen aintzinetikoa.

Karibdis: Itsas-munstroa, egunean hirutan ur kantitate handi bat eta urak zekarren guztia irensten zuena.

Kastor: Zeus eta Ledaren (Tindareoren emaztea) semea. Poluxen eta Troiako Elenaren anaia. Zaldizko bikaina izateagatik zen ezaguna.

Kreonte: Korintoko errege. Jason eta Medea bere erreinuan hartu zituen Kolkidatik itzuli zirenean. Jasoni bere alaba eskaini zion eta Medea erbesteratzeko agindu zuen. Jauregian hil zen, Medeak bidali zion ezkon-soinekoa jaso zuenean.

Kreusa: Kreonteren alaba.

Lieo: Bako, liberatzailea.

Lintzeo: Afareoren semea eta Idasen anaia. Argonauten espedizioari mesede handia egin zion bere ikusmen zoliak.

Luzina: Argiaren jainkosa, ezkontzari lotzen zaio. Erdi-urren dauden emakumeen eta erditzeen babesle. Ugalkortasunari eta haurren jaiotzari lotutako Juno eta Diana jainkosek ere izen hau jaso izan dute.

Maneak: Hildako arbasoen arimak, etxearen babesle ziren jeinuak.

Marte: Suaren eta gerraren jainkoa. Venusen senarra.

Menade: Dionisoren gorteko emakumeak ziren. Orkatz-larruz jantzita, eskuetan tirtso, zuzi eta mahats-mordoak zituztela, basoetan barrena dantzatzen ziren, ainuri eginez.

Miniak: Ikus. Argonautak

Neptuno: Itsasoaren jainkoa. Jasoni bere urak zeharkatzeko baimendu zuen Argo ontziarekin Kolkidaraino.

Orfeo: Argonautetako bat. Greziako zibilizazioaren fintasunaren sinboloa, baita musikaren boterearena ere.

Palas: Ikusi *Atenea*.

Pax: bakearen pertsonifikazio jainkotiarra.

Pelias: Tesaliako Iolkoko errege, Jasonen osaba eta Akastoren aita. Bere anaiordea, Eson, Jasonen aita, tronutik bota zuen. Jason gainetik kentzeko urrezko ahari-larruaren bila bidali zuen eta hau, Argonautekin batera, Kolkidara abiatu zen altxorraren bila. Jarraian Peliasek Eson erail zuen eta, ondorioz, Alzimedek, Jasonen amak, bere buruaz beste egin zuen. Jason itzuli zenean, gurasoen heriotzaren mendekua hartu nahi izan zuen eta Medearengana joan zen aholku eske, Korintora. Medea Iolkoko gortera joan zen eta Peliasen alabei sinestarazi zien gai zela haien aita zaharrari gaztetasuna emateko, haren gorputza zatikatuz eta pertz batean egosiz. Emakumeak konbentzitzeko, ahari zahar batekin egin zuen proba. Animalia pertzetik arkume bihurtuta irteten ikusi zutenean, Peliasen alabek Medearen esanak jarraitu eta agurearen gorpua zatikatu zuten, baina Medeak ez zuen Iolkoko erregea berpiztu. Hori ikustean, alabek alde egin zuten, Arkadiaren aurka egin zuten krimenaz izututa. Akastok aitaren gorputz zatiak jaso eta haren omenez hileta solemneak eta jokoak ospatu zituen. Medea eta Jason erreinutik bota zituen.

Pluton: Inframunduko jainkoa, Proserpinarekin batera (ikus. Proserpina).

Polux: Zeus eta Ledaren (Tindareoren emaztea) semea. Kastorren eta Troiako Elenaren anaia. Argonauta. Boxeolari bikaina izateagatik zen ezaguna.

Proserpina: Hasiera batean laborantza-jainkosa izandakoa, Plutonek bahitu eta inframundura eraman zuen arte, harekin batera inframunduko jainkosa bihurtzeko.

Sisifo: Eolo jainkoaren semea eta Korintoko fundatzaile eta erregea. Behin baino gehiagotan jainkoen haserrea eragin zuenez, hil zenean betiereko zigor bat ezarri zioten: mendi tontorreraino harri astun bat igotzea, behin gora iritsita beti maldan behera erortzen zena.

Tetis: Itsasoaren jainkosa, Ozeanoaren emaztea.

Tifis: Argonautetako bat, Argo ontziaren lehenengo lemazaina. Argoren eraikuntzaren buru izan zen Atenearengandik jaso zituen nabigazioari buruz zituen jakintza ugariak.

Titanak: Lehenengo belaunaldiko jainkoak eta haien ondorengoak.

Venus: Maitasunaren, edertasunaren eta ugalkortasunaren jainkosa. Marteren emaztea. Ezkontzaren bermatzaile diren ezkontzaren jainkoetako bat.

Zetes: Boreasen eta Oritiaren (Atenasko erregearen alaba) semea eta Kalaisen anaia. Argonautetako bat.

BIBLIOGRAFIA

CHAUMARTIN, François-Régis [ed. eta itz.], (1996). *Seneca, L. A. Tragédies*. Paris: Les Belles Lettres.

DUPONT, Florence [itz.], (1997). *Sénèque. Théâtre complet. 2. Médée; Hercule furieux; Hercule sur l'Oeta; Oedipe; Les Phéniciennes*, Paris: Impr. nationale.

FITCH, John G. [ed. eta itz.], (2002). *Seneca, L.A. Tragedies, Volume I: Hercules. Trojan Women. Phoenician Women. Medea. Phaedra*. Cambridge: Harvard University Press.

GRESLOU, Eugène [itz.], (2016). *Séneca, L. A. Médée*. Paris: Hachette.

LUQUE MORENO, Jesús [itz.], (1979). *Séneca, L. A. Tragedias I*. Madril: Gredos.

PÉREZ GÓMEZ, Leonor [itz.], (2012). *Séneca, L. A. Tragedias completas*. Madril: Cátedra.